

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 28an

9 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
  - IV.1. Barañaingo Udala (3. or.).
  - IV.2. Erakunde autonomoak (4. or.).
- V. Finantzei buruzko egoera-orriak (5. or.).
  - V.1. Barañaingo Udala (5. or.).
  - V.2. Erakunde autonomoak (5. or.).
- VI. Barañaingo Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (11. or.).
  - VI.1. 1998ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (11. or.).
  - VI.2. Finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n. (13. or.).
  - VI.3. Gorabeherak (15. or.).
  - VI.4. Administrazio kontratazioa (15. or.).
  - VI.5. Kudeaketari buruzko gomendioak (17. or.).
  - VI.6. 2000 efektua eta euro sartzea (18. or.).
  - VI.7. Hirigintza (18. or.).

**VII. Erakunde autonomoak (19. or.).**

VII.1. "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua (20. or.).

VII.2. "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola (20. or.).

I. **eranskina.** Udalaren organigrama, 1998ko abenduaren 31n. (22. or.).

II. **eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (23. or.).

**I. SARRERA**

Barañaingo Udala Iruñerrian dago kokatua, eta mugakide da Foru Komunitateko hiriburuarekin. 20.747 biztanleko zuzenbideko populazioa dauka –1998ko errolda–, eta , ikuspegi horretatik, Nafarroako hirugarren toki-entitatea da.

Gainera, bere jardura burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua.
- "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola.

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu hala uraren ziklo integrala nola hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko zifrarik garrantzitsuenak honako lauki honetan adierazten dira:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 98-12-31n
Udala	1.142	1.266	106 (1)
Lagunak	157	161	18 (2)
Musika Eskola	97	93	28 (3)

(1) Horietatik 21ek aldi baterako lan kontratua dute.

(2) Horietatik 4k aldizkako lan kontratu finkoa dute.

(3) 10 aldi baterako langileak dira.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak eraentzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkion gainontzeko arauak.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Barañaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1998ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egin ote den.

d) Udalaren 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Egindako azken fiskalizazio-txostenean, zeina 1997ko ekitaldiari buruzkoa baita, Kontuen Ganbara honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, Udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari,

kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia Plan Orokorraren betetzeari buruzko azterketa egitea izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak zein neurritan bete diren ikerituz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, Udalari aldeztu aurretik bidalitako galdera-sortak agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Txostenean daude Udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 1999ko maiatzean, ekainean eta uztailaren 2an egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaletxeko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

## IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan, Barañaingo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1998ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia hau agertuko dugu:

### IV.1. BARAÑAINGO UDALA

#### IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienez agertzen du ekitaldiko dirusarrera eta gastuen, kobratzeke dauden eskubideen, ordaintzeke dauden obligazioen eta 1998ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinaren behar bezalako irudia.

#### IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ibilgetua osatzen duten saldoen egokitasun-edo fidagarritasun-ezak eta udal inbentarioa -1992koa- gaurkotu gabe egoteak ezinezko egi-

ten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

#### IV.1.3. Legezkotasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, administrazio-kontratazioaren esparruan izan ezik, non ikusi ahal izan baita, azterturiko kasuetan, gai horri buruzko araudiak arau-haustek jasan dituela.

#### IV.1.4. 1998ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Barañaingo Udalak finantza-egoera erosoak erakusten zuen 1998ko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakin garrantzitsua -738 milioi-, aurrezpen garbiko portzentajea altua -ehuneko 18-, zorpetze-maila murriztua -ehuneko 4- eta 162 milioiko epe luzeko zorra.

Hala eta guztiz ere, komenigarria da honako alderdi hau azpimarratzea: Udalak oinarritzko eta funtsezko finantzaketa-iturri gisa transferentziarik duen menpekotasuna, zeren, aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 58 pezeta iturri horretakoak baitira.

#### IV.1.5. 1997ko txosteneko gomendioen jarraipena

Oro har, esan daiteke 1997ko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla; honako hauek dira salbuespenak:

- *Ez da onetsi Barne Araubideari buruzko Erre -gelamendua.*
- *Erakunde autonomoen kudeaketaren gaineko kontrol-prozedurarik ez da taxutu eta aplikatu.*
- *Epe ertain eta luzera udal-finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlanik ez da egin.*

### IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

#### IV.2.2. "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi islatzen du "Lagunak" zerbitzuak eginiko jarduera; hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldietan egin den bezalaxe, kutxa-irizpidea erabiltzen da nagusiki egitate ekonomikoaren kontabilitatea erregistratzeko.

Burururiko jardueraren agerpen diren eragiketak ez daude derrigorrezko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiz erregistratzen dira.

1998ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzearekin alderatuz, kontabilitate-sistemaren produktu automatiko bat da honako hau, arazketa- eta analisi-prozesurik gabekoa eta udal-ondasunen adskripziorik gabekoa. Beraz, interes gutxi-ko dokumentua da.

Azkenik, batez ere aurrekontu-aldaketen arloan, indarreko araudia ez dela bete ikusi ahal izan da.

#### IV.2.2. "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola

Gastu- eta dirusarrera-aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Eskolak burururiko jarduera, nahiz eta kutxa-irizpidea lehentasunez aplikatzen den egitate ekonomikoaren kontabilitatean erregistratzean, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

Eskolaren eragiketak ez daude derrigorrezko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiz erregistratzen dira.

1998ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzeari dagokionez, kontabilitate-sistemaren produktu automatiko bat da, arazketa- eta analisi-prozesurik gabekoa eta udal-ondasunen atxikipe-rik gabekoa. Interes gutxi-ko dokumentua da.

Eskolaren Estatutu-20. artikulua ez da betetzen. Izan ere, artikulua horrek kontrol- eta zaintza- eginkizun batzuk esleitzen dizkio Udalari hainbat arlotan (ekonomikoak, kontabilitatekoak eta aurrekontuei eta lan-aferei buruzkoak), eta Udalak aurrekontuak eta horien likidazioa onetsi besterik ez du egiten.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik, baina beharrezko du:
  - a) Bere ondasunen inbentarioa gaurkotzea, Udalaren jabetza bermatzeko bitarteko gisa.
  - b) Ibilgetuaren saldoak berrikustea, haren osaketa behar bezala ager dezaten.
  - c) Sektore publikoaren kontabilitateari buruzko plan orokorrean aurreikusitako oroit-idazkia egitea.
    - Zorrozkiki bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienean: kontratazio-espeditenteak eratzea, proiektu-esleipenean lehiakortasun-printzipioa aplikatzea eta exekuzio-epeak kontrolatzea. Era berean, barne-kontrolerako mekanismoak indar-

tzea komeni da, bereziki aholkularitza juridikoari dagokionez.

- Finantzen ikuspegitik, epe laburrean behar bezalako egoera erakusten badu ere, epe ertain eta luzerako estimazioek badirudi baliabide berekiak sortzeko ahalmena agor litekeela adierazten dutela. Gainera, aurrekoa larriagotu egiten da planeamenduan jasotako hirigintza-aurreikuspenak ia bukatuak daudela kontuan hartuz gero; eta ez dago udal dermioa hedatzeko posibilitate fisikorik. Funtsean, egoera horrek honakoak egin daitezela galdatzen du:

a) Lehentasuna daukaten Udalaren beharri buruzko proiektio ekonomiko-finantzarioak eta horien finantzaketa iturriak.

b) Presio fiskalari buruz aplika daitezkeen azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta horrek herritarrengan duen eraginari buruzko analisia.

d) Funtzionarioen montepioen eraginaren kostuari buruzko azterlanak eta alternatibak. Kopuru hori 122 milioikoa da; hau da, langileria-gastu guztien ehuneko 21.

e) Arrazionaltasunez jokatzeko oinarrikoak edo derrigorrezkoak ez diren zerbitzu berriak emateari buruzko erabakiak hartzean.

Horren guztiaren helburua udalerraren finantza-bideragarritasuna ziurtatzea da, alde batera utzita balizko merkataritza eta aisialdi proiektuak izatea.

- Erakunde autonomoei dagokienez, horien estatutuak osatu eta gaurkotu egin behar dira, haien benetako autonomia-maila agertzera emanez eta Udalak haien jardueraren gain erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakutsiz.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak direnez gero, kontu-hartzailatza publikoari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan burutu ahal izateko egoki diren prozedurak taxutu behar ditu Udalaren Kontu-hartzailatzak.

Halaber, gaur egungo kontabilitate-sistema erakunde horien kudeaketa-obligazioei egokitua ote dagoen aztertu behar da; benetako beharriaren eta kontabilitate publikoko betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

Azkenik, Ganbara honek Eszena Arteen Zentroa –lehen, Auditorioa– eraikitzeke obren egoerari buruz ohartarazi nahi du. 1998ko ekitaldian egoerak bere horretan iraun du, nahiz, Udalaren arabera, aurreikusita dagoen 2000 urtetik aurrera arazoari konponbidea ematea.

Ganbara honek dei egiten die zer esanik daukaten erakunde guztiei, denontzat onargarria eta norik bere gain hartzeko modukoa izanen den konponbide bat aurki dezaten, eta aurrerantzean horrelako egoerak saihestu ditzaten; azken horretarako, nahitaezkoa da bideragarritasunari buruzko aurreitiazko azterlanak egitea. Era honetako jarduketak kudeaketa publikoaren oinarri diren printzipio guztien aurkakoak dira.

## V. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orriak aurkezten ditugu. Erosotasun/operatibotasun arrazoiak direla-eta, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

### V.1. BARAÑAINGO UDALA

- Udaleko gastu- eta dirusarrera-aurrekontuaren likidazioa, atal ekonomikoa.

- Udaleko gastu-aurrekontuaren likidazioa, funtzio-taldea.

- Udalaren 1998ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Udalaren 1998ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

### V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Gastu- eta dirusarrera-aurrekontuaren likidazioa, atal ekonomikoa.

- Diruzaintza-gerakina, 1998ko abenduaren 31n.

**Barañaingo Udalaren aurrekontu-betetzea, 98-12-31n**  
**Dirusarrera-aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)**

	Atala	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Kobratua	Kobratzeke	Betetzearen	Aitorturiko guzt./gain. %
Zuzeneko zergak	1	224.000	0	224.000	271.737	231.496	40.241	121	21
Zeharkako zergak	2	94.200	0	94.200	117.160	102.909	14.251	124	9
Tasak eta bestelako dirusar.	3	101.675	0	101.675	103.234	84.894	18.340	102	8
Ohiko transferentziak	4	634.190	946	635.136	703.589	681.412	22.177	111	56
Ondare-dirusarrerak	5	37.200	0	37.200	35.288	32.804	2.484	95	3
Inbertsio errealak besterentzea	6	0	0	0	0	0	0	0	0
Kapital transferentziak	7	54.800	0	54.800	35.347	1.756	33.591	0	3
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	87.851	87.851	0	0	0	65	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	188.446	0	188.446	0	0	0	0	0
<b>Dirusarrerak, guztira</b>		<b>1.334.511</b>	<b>88.797</b>	<b>1.423.308</b>	<b>1.266.355</b>	<b>1.135.271</b>	<b>131.084</b>	<b>89</b>	<b>100</b>

**Gastu-aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)**

	Atala	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindua	Ordain-tzeke	Betetzearen	Aitorturiko guzt./gain. %
Langileei ordaintzea	1	590.095	0	590.095	569.389	557.426	11.963	96	50
Ohiko ondasun eta zerb. erostea	2	364.110	8.671	372.781	318.949	266.665	52.284	86	28
Korrituak	3	4.880	-400	4.480	2.544	2.543	1	57	0
Ohiko transferentziak	4	86.746	-450	86.296	70.750	61.119	9.631	82	6
Inbertsio errealak	6	238.380	78.976	317.356	129.891	60.693	69.198	41	11
Kapital transferentziak	7	0	2.000	2.000	506	0	506	25	0
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	50.300	0	50.300	50.289	50.289	0	100	5
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.334.511</b>	<b>88.797</b>	<b>1.423.308</b>	<b>1.142.318</b>	<b>998.735</b>	<b>143.583</b>	<b>80</b>	<b>100</b>

**1998ko aurrekontuaren betetzea kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)**

Funtzio-nala	Deskribapena	Langileria-gastuak	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	Finantza-gastuak	Ohiko transferentziak	Inbertsio errealak	Kapital-transferentziak	Finantza-aktiboak	Finantza-pasiboak	Aitorturiko betebeharrak, guztira	Guztiz-koaren gaineko %
31	Gizarte-segurantza eta -babesa	230.024	21.905	0	10.926	1.752	0	0	0	264.607	23
45	Kultura	20.911	74.743	0	42.708	50.406	0	0	0	188.768	17
43	Etxebizitza eta hirigintza	63.105	50.606	0	0	55.501	506	0	0	169.718	15
42	Hezkuntza	61.912	67.945	0	8.511	6.677	0	0	0	145.045	13
12	Administrazio orokorra	46.829	30.796	0	748	11.211	0	0	0	89.584	8
22	Segurtasun eta babes zibilak	79.144	4.691	0	0	1.780	0	0	0	85.615	7
44	Komunitatearen ongizatea	0	55.901	0	0	0	0	0	0	55.901	5
01	Zor Publikoa	0	0	2.544	0	0	0	0	50.289	52.833	4
61	Araupetze ekonomikoa	26.428	3.883	0	0	0	0	0	0	30.311	3
32	Gizarte-sustapena	29.783	1.164	0	0	0	0	0	0	30.947	3
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	0	4.469	0	7.857	2.160	0	0	0	14.486	1
11	Gobernu-organoak	11.253	1.730	0	0	0	0	0	0	12.983	1
41	Osasuna	0	1.116	0	0	403	0	0	0	1.519	0
	<b>Guztira</b>	<b>569.389</b>	<b>318.949</b>	<b>2.544</b>	<b>70.750</b>	<b>129.891</b>	<b>506</b>	<b>0</b>	<b>50.289</b>	<b>1.142.317</b>	
		<b>%46</b>	<b>%27</b>	<b>%0</b>	<b>%6</b>	<b>%17</b>	<b>%0</b>	<b>%0</b>	<b>%4</b>	<b>%100</b>	<b>%100</b>

## Egoerari buruzko balantzea, 1998 (pezetak, milakotan)

AKTIBOA		
Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
	<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>456.376</b>
202	Eraikinak	282.287
203	Makineria, instalazioak eta tresneria	11.049
204	Garraio-elementuak	14.646
205	Altzariak	48.356
206	Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	16.319
209	Espezializaturiko instalazio konplexuak	83.719
	<b>Ibilgetu ez materiala</b>	<b>6.497</b>
218	Bestelako ibilgetu ez-materiala	6.497
	<b>Azpiegituretan eginiko inbertsioak eta erabilera orokorrerako ondasunak</b>	<b>100.390</b>
220	Lurrak eta ondasun naturalak	20.581
221	Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	79.809
	<b>Zordunak</b>	<b>255.168</b>
430	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, indarreko aurrekontua	131.084
431	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, itxitako aurrekontuak	117.176
561	Emandako aurrerakin eta maileguak	1.952
566	Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak, formalizatzea	54
558	Zordunak, BEZa dela-eta	25
569	Beste hainbat zordun, aurrekontuz kanp.	4.877
	<b>Finantza-kontuak</b>	<b>783.336</b>
550	Entregak, eragiketak burutzeko	49
570	Kutxa	306
571	Bankuak eta kreditu erakundeak, kontu operatiboak	779.744
572	Bankuak eta kreditu erakundeak, dirubilk. murrizt. kontuak	3.237
	Aktiboa, guztira	1.601.767
	<b>Aktiboko ordena-kontuak</b>	
	Aktiboko ordena-kontuak	76.887
062	Geroratze eta zatikatzearen berme gisa eskainitako dok.	76.887
	Aktiboko ordena-kontuak, guztira	76.887

PASIBOA		
Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
	<b>Ondarea eta erreserbak</b>	<b>865.146</b>
100	Ondarea	141.014
130	Aplikatzeko dauden emaitzak	724.132
	<b>Kapital-dirulaguntzak</b>	<b>138.129</b>
145	Autonomi erkidegoenak	77.518
147	Enpresa pribatuenak	29.484
148	Familienak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeenak	31.127
	<b>Epe luzeko zorrak</b>	<b>164.782</b>
160	Epe luzeko maileguak	14.782
170	Epe luzeko barneko maileguak	150.000
	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>181.604</b>
400	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrek.	7.079
401	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Itxitako aurrekontua	579
410	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrek.	136.504
411	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrek.	7.927
420	Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	374
475	Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodun	16.443
477	Gizarte Segurantza hartzekoduna	1.401
478	Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa	98
510	Jasotako gordailuak	35
512	Funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko entitateak	1.114
516	Aurrekontuz kanpoko ordainketak formalizatzea	454
519	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	3.382
520	Epe laburreko fidantzak	6.214
	<b>Aplikatzeko dauden kontusailak</b>	<b>1.927</b>
554	Aplikatzeko dauden dirusarrerak	1.917
555	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	10
	<b>Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>250.179</b>
890	Ekitaldiko emaitzak	250.179
	Pasiboa, guztira	1.601.767
	Pasiboko ordena-kontuak	
067	Gero. eta zatik. berme gisa eskainitako dok. gordailu-egileak	76.887
	Pasiboko ordena-kontuak, guztira	76.887

## Diruzaintza-gerakinaren egoera

		Zenbatekoak (Pezetak, milakotan)
(+)	Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	136.065
	Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	131.084
	Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	117.176
	Merkataritza-eragiketetakoak (*)	0
	Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	6.908
	Ken kobratzen zailak diren saldoak	-117.176
	Ken behin betiko aplikatzeke dauden dirusarrerak egindakoak	-1.927
(-)	Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(181.555)
	Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	143.583
	Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak.	8.506
	Dirusarrera-aurrekontukoak.	374
	Merkataritza-eragiketetakoak	0
	Beste ente publiko batzuetako baliabideetakoak	0
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	29.141
	Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak	-49
(+)	Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak	783.287
	Atxikitako finantzaketa daukaten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	0
	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	737.797
	Diruzaintza-gerakina, guztira	737.797

## "Lagunak" Udal Zerbitzua

## 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Emitzak	Betetze %
1.	Langileria-gastuak	68.790	0	68.790	65.514	1.742	95
2.	Ohiko ond. eta zerb. erostea	77.922	8.053	84.975	84.974	8.797	99
3.	Finantza-gastuak	50.000	68	50.068	118	0	0
4.	Ohiko transferentziak	3.936	155	4.091	4.086	416	100
6.	Inbertsio errealak	5.000		5.000	2.846	415	57
	Gastuak, guztira	205.648	8.276	213.924	157.178	11.370	73

## 1998ko dirusarrera-aurrekontua betetzea (pezetak, milakotan)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gain harturikoa	Biltzeke	Betetze %
3.	Tasak eta bestelako dirusarrerak	147.714	147.714	151.328	1.225	102
4.	Ohiko transferentzien ondoriozko dirusar.	6.112	6.112	7.745	260	127
5.	Ondare-dirusarrerak	1.872	1.872	2.170	80	116
	Dirusarrerak, guztira	155.698	155.698	161.243	1.565	104

“Lagunak” udal zerbitzua  
Diruzaintza-gerakinaren egoera (pezetak, milakotan)

Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
(+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	1.932
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	1.565
Dirusarrera-aurrekontukoak. Ixitako aurrekontuak	17
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketekoak	350
Ken aplikatzeke dauden dirusarrerak	0
Ken kobratzen zaila den saldoa	0
(-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(13.380)
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	11.370
Gastu-aurrekontukoak. Ixitako aurrekontuak	0
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketekoak	2.010
Ken aplikatzeke dauden ordainketak	0
(+) Diruzaintzako fondo likidoak	25.419
Atxikitako finantza-desbideraketarekin atxikitako diruzaintza-gerakina	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	13.971
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>13.971</b>

Musika Eskola

Gastu-aurrekontuaren likidazioa (pezetak, milakotan).

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindua	Ordaintzeke	Betetze %.
1. Langileria-gastuak	87.221	87.221	86.128	84.472	1.656	99
2. Zerbitzuen eta ohiko ondasunen ondoriozko gastuak	10.352	10.607	9.799	7.325	2.474	92
3. Finantza-gastuak	25	25	1	1	0	4
4. Ohiko transferentziak	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	1.484	1.484	1.021	1.021	0	69
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>99.082</b>	<b>99.337</b>	<b>96.949</b>	<b>92.819</b>	<b>4.130</b>	<b>98</b>

Dirusarrera-aurrekontuaren likidazioa (pezetak, milakotan).

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Deusezturiko eskubideak	Kobratzekoak		Betetze %	
					diren eskubideak	Kobratua		Kobratzeke
3. Tasa eta bestelako dirusar.	40.848	40.848	41.890	219	41.671	41.404	267	102
4. Ohiko transferentziak	57.734	57.989	50.569	0	50.569	49.882	687	87
5. Ondare-dirusarrerak	500	500	821	0	821	821	0	164
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>99.082</b>	<b>99.337</b>	<b>93.280</b>	<b>219</b>	<b>93.061</b>	<b>92.107</b>	<b>954</b>	<b>94</b>

## Diruzaintza-gerakinaren egoera (pezetak, milakotan)

	Zenbatekoak
(+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	1.546
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	954
Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	21
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetak	571
Ken aplikatzeke dauden dirusarrerak, izandakoak	0
Ken kobratzen zaila den saldoa	0
(-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	7.015
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	4.130
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	9
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetak	2.876
Ken aplikatzeke dauden ordainketak, egindakoak	0
(+) Fondo likidoak diruzaintzan	14.699
Atxikitako finantza-desbideraketarekin atxikitako diruzaintza-gerakina	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	9.230
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>9.230</b>

**VI. BARAÑAINGO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.1. 1998KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

Gastu eta dirusarreraren 1998ko aurrekontuak 1.335 milioiko hasierako kredituak eskaintzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira, gehienak aurreko ekitaldietako gerakina gaineratzeko.

Aitorturiko obligazioak 1.142 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 80koa da. Atal-ka, hauexek adieraziko ditugu: langileria –hemen, betetzea ehuneko 96koa izan da–; ondasun arruntak eta zerbitzuak –betetzea ehuneko 86koa izan da–; eta inbertsioak –hemen, ehuneko 41ekoa izan da, hau da, aurreikusitakoa baino 187 milioi gutxiago–.

Ehunekoak erabilia, osaera honako hau da:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	85
Inbertsioak	11
Finantza-zamakoak	4
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da –langileria, ondasunak eta ohiko transferentziak–, gastatzen dituen 100 pezeta bakoitzeko 85

bereganatzen baititu Udalak; langileriarako, zehazki, 50 pezeta erabiltzen dira. Finantza-zama ehuneko 4 besterik ez da, eta nagusiki amortizazioei dagokie.

Langileriar dagokionez, 1998ko abenduaren 31n honako langile hauek egin zuten lan Udaltxean:

Langileak	Kopurua
Behin-behineko langileak	2
Funtzionarioak	21
Lan-kontratudun finkoak	62
Aldi baterako lan-kontratudunak	21
<b>Guztira</b>	<b>106</b>

Ikus daitekeenez, postuen ehuneko 58 lan-kontratudun finkoei dagozkie; ehuneko hori ehuneko 75eraino igotzen da proportzioa postu finkoekiko soilik kalkulatzeko baldin bada.

Langile funtzionarioak idazkaria, kontu-hartzailea, diruzaina eta udaltzainak dira; behin-behinekoa, Alkatea, udaltzainen burua eta arkitekto tekniko bat. Aldi baterakoetatik, 11 gizarte-enpleguaren arlokoak dira.

Zinegotzien lansariak 11,3 milioi egiten dute guztira; horietatik 5,7 alkatetzari dagozkie. Azken horren lansari guztiei PFEZa eta haren atxikipean aplikatu behar zaizkie. Osoko Bilkuraren era-

bakiz, zinegotzientzako dietei ez zaizkie haiek aplikatzen.

Halaber, azpimarratu beharrekoa da Funtzionarioen Montepioak 122 milioiko kostua –hau da, langileria-gastu osoaren ehuneko 21 edo zerbitzuak ematen ari den funtzionario bakoitzeko 5,8 milioi– ekarri diola Udalari.

Aitorturiko eskubideei dagokienean, 1.266 milioikoak dira; betetze-maila ehuneko 89koa da. Atalka, zeharkako zergak, tasak eta ondarearen gainekoak nabarmentzen dira, ehuneko 100 baino handiagoak baitira. Ondare-dirusarrerek eta kapital-transferentziek, aldiz, ehuneko 95ko betetzea daukate.

Portzentajeen araberrako osaerari dagokionez:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributuen bidezkoak	38
Transferentzien bidezkoak	59
Ondarekoak	3
Guztira	100

Alegia, 1998ko aurrekontuaren finantza-iturri nagusia transferentziek, batez ere arruntek, osaturikoa da –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 56 pezeta transferentzia arruntetakoak dira–; zergaizaerako dirusarrerek, ordea, ehuneko 38 egiten dute.

Ondoko laukian jasotzen dira zerga-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 1998an aitorturikoa (pezetak, miliokoetan).

Zerga-figura	Zenbatekoa
Hiri-kontribuzioa	191
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	61
Lursailen plusbaliaren gaineko zerga	20
Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga	40
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	69
Telefónica-ren kanona	8
Hirigintza-lizentziak	20
Irekitze-lizentziak	3

Nabarmen da hiri-kontribuzioaren pisu berezia, gainontzeko zerga-figurak gainditzen baititu. Bestalde, adierazi beharra dago ezen 1998an dirusarrera gisa kontabilizatu dela 1997ko eta 1998ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ); izan ere, 1997an Udalak ez baitzuen ia kudeatu zerga hori –gainontzeko toki-entitate ia guztiek bezala–,

Nafarroako Gobernuak datu-basea eratzeke izan zituen arazoak zirela-eta.

1998ko betetze-egoerak 124 milioiko aurrekontu-defizita erakusten du. Emaitza hori eskubideen eta aitorturiko obligazioen arteko aldearen ondoriozkoa da.

1998ko abenduaren 31n ordaintzeke zeuden kopuruak –gastuen erresultak– 152 milioi egiten zuten; horietatik, 9 milioi aurreko ekitaldietakoak ziren. Kobratzeke zeuden kopuruak –dirusarreren erresultak– guztira 248 milioikoak ziren, eta jatorria aurreko ekitaldietan zeukatenak ehuneko 47 ziren.

Abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 738 milioikoa zen. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke zeuden 181 milioiko zorrak, kobratzeke zeuden 138 milioiko dirusarrerak eta 783 milioiko fondo likidoak. Itxitako aurrekontuetatik eratorriak izan eta sartzeke zeuden kopuru guztiak –117 milioi– kobratzen zailak direla jo dugu.

Azkenik, ondoko laukian erakusten da, ehunekoak erabiliz, 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinetan sailkatutik eta 1997koarekin alderaturik.

Eginkizuna	Deskribapena	1998	1997
01	Zor publikoa	5	5
11	Gobernu-organoak	1	1
12	Administrazio orokorra	8	7
22	Segurtasuna eta babes zibila	7	7
31	Segurtasuna eta gizarte-babesa	23	21
32	Gizarte-sustapena	3	2
42	Hezkuntza	13	14
43	Etxebizitza eta hirigintza	15	12
44	Komunitatearen ongizatea	5	5
45	Kultura	17	19
46	Komunitatearen eta gizartearen esparruetako bestelako zerbitzuak	1	1
61	Araubide ekonomikoa	3	6
	Guztira	100	100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu:

- 1997ko aitorturiko obligazioen ehuneko 23 “Segurtasuna eta gizarte-babesa” eginkizunerako erabili ziren. Garrantzi-hurrenkeraren arabera, atzetik “kultura” dator –ehuneko 17–, “etxebizitza eta hirigintza” –ehuneko 15– eta “hezkuntza”

–ehuneko 13–. Gainontzeko eginkizunen artean banatua dago aitorturiko obligazioen gainontzeko ehuneko 32.

Ordezkarritasun handieneko 4 eginkizun-taldeen osaera ekonomikoari dagokionez, “segurtasuna eta gizarte-babesa” izenekoan horko gastuen ehuneko 87 langileriari dagokiola esan beharra dago; “kulturan”, gasturik garrantzitsuen inbertsioei dagokie –ehuneko 40–; “etxebizitza eta hirigintza”ren esparruan, ordea, langileriarenak dira gasturik handienak; “hezkuntzan”, azkenik, zerbitzuak eta ondasun arruntak erosteko gastuak dira garrantzitsuenak –ehuneko 47–.

• 1997ko datuekin konparatuz gero, ehunekoak aurreko ekitaldiaren antzekoak dira; hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da zerbait egin dutela gora etxebizitza eta hirigintzari eta gizarte segurtasun eta babesari dagozkionak; erregulazio ekonomikoa ere pixkanaka jaitasi dira.

## VI.2. FINANTZA-EGOERA 1998ko ABENDUAREN 31n.

1998an Udalak dauzkan ratio edo adierazleak honakoak dira, 1997ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	1998	1997
Aurrekontu-superabit/defizita (milioiak)	124	-31
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	61.038	55.687
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	55.059	57.235
Biztanle bakoitzeko finantza-zama (pezetak)	2.547	2.602
Biztanle bakoitzeko zerga-dirusarrerak (pezetak)	23.672	20.642
Kobrانتzen betetzea (ehunekoa)	90	92
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	87	90
Zorpetze-maila (ehunekoa)	4	5
Zorpetze-muga (ehunekoa)	22	16
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	18	11
Langileria-indizea (ehunekoa)	50	46
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	11	17
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	58	59

Eginiko azterketatik, hauxe azpimarratzen dugu:

• 1998ko ekitaldiak 124 milioiko aurrekontu-defizita agertzen du, aurreko ekitaldiko superabitatekin konparatuz –31 milioi.

• 1997ko datuekin alderatuz aitorturiko eskubideek ehuneko 12 gora egin dute hein handi batean ekitaldi bereko eta aurreko ekitaldiko JEZaren dirusarrerak 1998an erregistratu direlako. Hala ere, biztanle bakoitzeko dirusarrerak handitu egin dira, biztanle bakoitzeko 55.687 pezetatik 61.038 pezetara pasatu baitira; hau da, ehuneko 10eko handitzea izan da.

• Aitorturiko obligazioak zerbait jaitasi dira 1997ko ekitaldiarekin alderatuta; biztanle bakoitzeko gastuak, bada, 1997an 57.235 PTA/biz. izatetik 1998an 55.059 PTA/biz. izatera pasatu dira. Beraz, ehuneko 2ko murrizketa gertatu da.

• Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 14 egin dute gora: 23.671 PTA/biz. dira 1998an. Igoera hori neurri batean azaltzeko, kontuan hartu behar da 1998ko aurrekontuan urte horretako eta aurreko urteko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) erregistratu dela; horien erroldak 29 milioi pezeta egiten ditu. 1997ko JEZaren zenbaketok sartu izan ez balitz, biztanle bakoitzeko tributurak dirusarrerak 22.275 PTA egiten zuten 1998an.

• Biztanle bakoitzeko finantza-zama ere jaitasi egin da, %3, aurreko ekitaldiarekiko; Nafarroako Aurrezki Kutsako kredituaren muga murrizteari eta batez besteko korritu-tasak jaitasi izanari zor zaio hori.

• Zorpetze-mailak puntu bat egin du behera –ehuneko 4 da 1998an–; zorpetze-muga, berriz, handitu egin da. Bide beretik, zera antzeman ahal izan dugu: aurrezki garbiak ehuneko 11 izatetik ehuneko 18 izatera pasatu da.

• Langileria-gastuek gastu guztien ehuneko 50 egiten dute. Kopuru hori 1997koa baino lau puntu handiagoa da. Inbertsio-indizea %12koa izan da, aurreko urtekoa baino bost puntu txikiagoa.

• Aitorturiko eskubideek nabarmen gora egin dutenez –aitorturiko obligazioek ez bezala–, aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak ere gora egin dute; izan ere, finantza-zama aurreko ekitaldiaren antzekoa da, mailegu berriak eskatu ez direlako eta indarrean daudenak 1997ko abenduaren 31ko berak direlako.

• Zorpetze-maila zerbait murriztu da, dirusarrerak arruntek ere behera egin dutelako; finantza-zama, ordea, aurreko ekitaldiaren antzekoa da.

• Per capita gastua piska bat murriztu da, baina zerga-presioak gutxi gorabehera 3.000 PTA/biz. egin du gora.

• Inbertsio indizeak nabarmen egin du behera: ehuneko 11 da 1998an (ehuneko 17, 1997an).

Langileri gastuek, berriz, gora egin dute: ehuneko 50 da 1998an (ehuneko 46 zen 1997an).

- Dirulaguntzekiko menpekotasunak oso handia izaten jarraitzen du, eta 1997koaren antzekoa da. Dirusarreraren ehuneko 58 inguru da dirulaguntzen (arruntak eta kapitalekoak) bidetik eskuratzeko dena.

1998ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	1998
Diruzaintza-gerakina	738
Epe luzeko zorra	162

Hau da, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina epe luzeko zorraren ondoriozko finantza-beharrizanei estutasunik gabe erantzuteko adina da, eta finantzaketa-iturri garrantzitsua da 1999ko aurrekonturako.

Kontuan hartu behar da diruzaintza-gerakinen zati batek atxikitako finantziarioa zuten gastuei atxiki zaiela; izan ere, gazteriaren etxea berreraikitzeke etorkizuneko gastuei atxikitako 29,5 milioi pezetako dirusarreraren aitortu direlako 1998an, hori 2000 urterako aurreikusita badago ere. Hala eta guztiz ere, ikusirik Udalaren finantza-egoera oso saneatuta dagoela, horren eragina ez da handia izanen.

Bestalde, epe luzeko zorra honela dago osatua:

- Nafarroako Gobernuak 1989an emandako mailegu bat, ehuneko 5eko interesarekin; 1998an 12 milioi zeuden ordaintzeke, 17 urte-kuotetan banatuta. Horren helburua lokalen erosketa finantziatzea zen.

- Ohiz kanpoko aurrekontuak finantzatzeko kreditu bat, 1991n emandakoa, hasierako interes-tasa ehuneko 15,5ekoa zeukana –zeina 1996an birnegoziatua izan baitzen, eta mibor + 0,5-eko korritu-tasan ezarri baitzen–; horretatik lau urte-kuota geratzen dira ordaintzeke: 50 milioi urte bakoitzeko.

Aurreko datuek arazorik gabeko finantza-egoera bat agertzen dute; horregatik, komenigarria izanen litzateke aztertzea ea kreditua bizirik manten-

zea interesgarria den ala hobe den hori garaiz aurretik likidatzea.

Azkenik, ondoko laukian, Barañaingo eta Nafarroako gainontzeko 10.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udaletako 1997ko informazioa alderaturik agertzen da, hainbat ratori dagokionez<sup>(1)</sup>.

Ratioak	Nafarroako TTEE 1997 (10.000-50.000 bizt.)	Barañaing 1998
Ohiko gastua/biztanle	80.258	46.228
Ohiko dirusarrera/biztanle	99.772	59.334
Zerga dirusarrera/biztanle	54.593	23.672
Zorpetze-muga	23	22
Zorpetze-maila	7	4
Zorpetze-ahalmena	16	18

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik<sup>(2)</sup>, indarrean diraute 1997ko txostenean Barañaingo egoerari buruz adierazi genituen ondorioak; hau da, Barañaingo biztanleek beren biztanle-tarte bereko gainerako udaletakoek jasaten duten gastu eta dirusarreraren erdia jasaten dute; hala ere, zorpetze-maila txikiagoa dute.

**Ondorio gisa**, esan genezake Barañaingo Udalak 1998 abenduaren 31n daukan finantza-egoera zuzena dela, baina nabarmenak direla finantzen agorpenaren zantzuak. Agorpen horren arrazoiak hauek dira: hirigintza-eragiketen amaiera eta hazteko ahalmen urria (bai etxebizitzak eraikitzearen ikuspegitik, bai eragin ekonomikoa daukaten beste zerbitzu edo jardueren ikuspegitik ere).

Gure ustez, egoera horren ondorioz, honako neurri hauek hartu beharko dira:

- *Zerga-baliabideak lortzeko ahalmenari buruz -ko azterlan sakon bat egitea, gaur egungo zerga-legediak Toki Entitateetarako aurreikusten duen mekanismo eta posibilitate bakoitza kontuan izanik.*

- *Zerbitzu publikoei, bereziki derrigorrezkoak ez direnei, aplikaturiko gaur egungo tasa eta prezioen kostu-estalduraren norainokoa ikertu eta aztertzea.*

- *Plan ekonomiko-finantzario bat garatzea, zeinak helburu gisa honako hauek aztertzea izanen baitu: emandako zerbitzuak, dagoen eskaria,*

(1) Datu hauek Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

(2) Ondokoak eduki behar dira gogoan, batez ere: alde batetik, zerbitzu publikoak emateko modu ezberdinak eta zerbitzu horien kalitatea; bestetik, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen eragin koiunturalak.

*finantzaketa, beharrezkoak diren inbertsioak eta lehentasunen arabera horiek sailkatzea, eta gas-tuak mugatzeko nahiz baliabideak lortzeko politikak.*

- *Bizilagunentzat informazio- eta kontzientzia-zio-kanpainak egitea, jakin dezaten funtsean nola-koak diren Udalaren finantza-beharrizanak, zerbitzu gehiago emateari edo jadanik daudenak gehitzeari dagokionez.*

Neurri horiek hartzeak, hein batean besterik ez bada ere, saihestu eginen luke Nafarroako Gobernuaren transferentzien ondoriozko dirusarreretikiko menpekotasun gero eta handiagoa, eta, ziur asko, Udalari finantza-autonomia handiagoa emanen lioke. Horrek guztiak udalaren finantza-bideragarritasuna bermatzea izanen luke azken helburu.

### VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurtsu nagusiak:

- Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkezturiko babes-errekurtsua, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiaren 1997ko otsailaren 20ko epaiaren aurkakoa (320/1994 zk.ko Administrazioarekiko auzi-errekurtsua); epai horrek hainbat postutarako deialdia deuseztu zuen, euskara balioesteko modua zela-eta.

- Auzitegi Nagusiak emandako eta goian aipaturiko epaiaren aurretik, hainbat Administrazioarekiko auzi-errekurtsu daude aurreko postu elebidun horien hornidurarako deialdiei buruzko udal erabakien aurka.

- 279/1997 zk.ko Administrazioarekiko auzi-errekurtsu-administratiboa, eraikuntza-enpresa batek 1996ko abenduan Udaleko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren aurka aurkezturikoa. Erabaki horren bitartez zehapen bat ezarri zitzaion obra-kontratu bat betetzerakoan izandako berandutzeagatik. 5,3 milioikoa da eztabaidatzen den zehapena.

- Gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian, Udaltzaingoko hamaika udaltzainek aurkezturikoa. Gradua esleitzearen ondorioetarako Polizia Akademian igarotako prestakuntza-aldia zenbatesteari buruzkoa da.

Txosten hau idazterakoan, Udalaren menpean dauden zerga guztiak zerga-ikuskapeneko epearen barnean daude.

### VI.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal hau banatu egin da, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntutan, eta, bestetik, inbertsioetan.

#### VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Eginiko lanetik, hauxe azpimarratzen dugu:

- Kontuen Ganbara honen gomendioei jarraituz, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu bat aplikatzen da; hala ere, eginiko lagin-hartzearen ondoren, honako gomendio hauek azpimarratu nahi ditugu:

*Administrazio-zirkuituak halako moduan bete-tzea non Udal Kontu-hartzailetzaren jarduketa eskuratzeko-prozesu guztietan bermatuko baitute.*

*Espedienteak prestatu eta izapidatzeko lana aduradun bakar batengan zentralizatu behar da.*

- Kanpoko aholkulariekin dauden harremanak ez daude dokumentu bidez jasota kasuan kasuko kontratuan.

*Harreman horiek kasuan kasuko kontratuan formaliza daitezen gomendatzen dugu.*

- "Alaitz" Ikastetxe Publikoko garbiketa-kontratuaren esleipenerako prozedura negoziatua erabili zen, eta 10 milioitan egin zen, hau da, zuzeneko esleipenerako ezarritako zenbatekoa gainditzen duen kopuru batean. Aurreko ekitaldian gomendatu genuena gorabehera, kontratua 1998rako eta 1999rako ere luzatu da.

#### VI.4.2. Inbertsioak

Ikuskaturiko inbertsioetatik, honako hau azpimarratzen dugu:

KIROLEN HIRIBIDEAREN ETA BARAÑAINGO ERRONDAREN ARTEAN GLORIETA BAT EGITEA

Honako hauek dira aipaturiko obraren datu garrantzitsuenak:

Esleipen-prozedura	Negoziatua, publikotasunarekin	Obra Enkantea, presako izapideaz
Lizitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	1,9	15
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	1,8	12,7
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	4,6	(15,3)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	1,7	11,9
Likidazioa/esleipena, aldaketa	(4,2)	(6,3)

Espedientea azterturik, honako arau-haustek antzeman ditugu:

- Ez dago jasota NAO n obraren esleipena argitaratu denik, ez eta esleipenera aurkeztutako lizitzaileei jakinarazpena igorri zaienik ere.
- Espedientean ez dago jasota zein izan zen presako izapidea erabiltzeko arrazoia.

ERRONDAK ERAIKI ETA INDUSTRI EREMUAN GALIPOTA BOTATZEA

Honako hauek dira aipaturiko obraren datu garrantzitsuenak:

Esleipen-prozedura	Enkantea, presako izapideaz
Lizitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	40
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	31,1
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	(22,3%)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	30,4
Likidazioa/esleipena, aldaketa	(%2,25)

Espedientea azterturik, honakoak antzeman ditugu:

- Obra-proiektua zuzenean esleitu zitzaizen Udalaren aholkulari teknikoei, baina ez da kontratazio espedienterik ageri.
- Ez dago jasota NAO n obraren esleipena argitaratu denik, ez eta esleipenera aurkeztutako lizitzaileei jakinarazpena igorri zaienik ere.
- Espedientean ez dago jasota zein izan zen presako izapidea erabiltzeko arrazoia.

BARAÑINGO ERRONDAKO ARGITERIA JARTZEKO OBRA KONTRATATZEKO PROIEKTUA

Honako hauek dira aipaturiko obraren datu garrantzitsuenak:

Esleipen-prozedura	Proiektua	Obra
	Zuzena	Enkantea, presako mugarekin
Lizitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	-	21,5
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	1,2	20,7
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	-	(3,7%)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	1	1999an aitorturiko betebeharrak
Likidazioa/esleipena, aldaketa	(%16,7)	-

Espedientea azterturik, honakoak antzeman ditugu:

- Proiektu hori 1998an esleitu zen, zuzenean, inolako espedientea izapidatu gabe eta Legez

gutxienez eskatzen diren hiru eskaintzak eskatu gabe. Horri buruzko kontu-hartzailetzaren aurkako txosten bat badago.

KIROLDEGIKO ALDAGELAK ETA ADMINISTRAZIO-GUNEA BERRITZEA

Honako hauek dira aipaturiko obraren datu garrantzitsuenak:

Esleipen-prozedura	Negoziatua, publikotasunarekin
Lizitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	14,9
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	14,8
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	(%0,7)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	14,9
Likidazioa/esleipena, aldaketa	%0,7

Espedientea azterturik, honakoak antzeman ditugu:

- Obra horren proiektua eta zuzendaritza –bi fasetan banatuta dago: lehen fasea aldagelak berritzekoa da, eta bigarrena administrazio-gunea berritzeari dagokio– Udalaren arkitektoak zuzenean egin du.

LAGUNAK-EKO SAPAIA ZAHARBERRITZEKO OBRAK

Hauek dira obra horri buruzko datu nagusiak:

Esleipen-prozedura	Negoziatua, publikotasunarekin
Lizitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	14,6
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	13,9
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	(%4,8)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	13,9
Likidazioa/esleipena, aldaketa	%0

Espedientea azterturik, honakoak antzeman ditugu:

- Akatsa dago eskatutako abalean; izan ere, 0,4 milioi eskatu dira 0,5 eskatu orde. Hain zuzen ere, adjudikazioaren ehuneko 4 egin behar du abalak.

- Obrak jasotzeari buruzko akta ez zegoen espedientean jasota esleipen-hartzaileak fidantza eskatzeko eskatu zuenean: kontu-hartzailetzara adjudikazio-hartzaileak bermea eskatzeko itzuli zuenean igorri zen.

RETEGUI II PILOTALEKEUA EGOKITU ETA ZAINTEKO OBRAK

Hauek dira obra horri buruzko datu nagusiak:

Esleipen-prozedura	Negoziatua, publikotasunarekin
Lilzitazio-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	4,4
Esleipen-zenbatekoa (pezetak, milioitan)	4,4
Esleipena/lizitazioa, aldaketa	%0
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	4,3
Likidazioa/esleipena, aldaketa	(%2,3)

Ondokoa adierazi behar da: 0,4 milioi pezeta-ko faktura bat dago, gerokoa, esleipen-zenbatekoaren ehuneko 10 gainditzen ez duten ezusteko obren ondoriozko kontratua zabaltzeagatik.

Ez da akatsik antzeman espedientearen izapitatzean.

“ESZENA ETA ARTEEN ZENTROA” BUKATZEKO LANAK

Aurreko ekitaldiari buruzko txostenean, hasierako proiektua aldatzeko proiektuaren erredakzioa irregularra aipatu genuen, ez baita inongo kontratazio espedientetan oinarriturik, eta kontratazio-plegurik ere ez dagoelako. Hori zela eta, kontu-hartzaileak 7,5 milioi pezetaren ordainketa geldiarazi zuen eragozpen-oharra aurkeztu zuen. 1998an, 6,6 milioi pezetako behin betiko faktura jaso eta urte berean ordaindu da, kontu-hartzaileak aurkako txostena eman badu ere.

Bestalde, aipatu beharrekoa da aurreko proiektuari jarraituz, lehen Auditorioa zeritzaion horren obrak eta ekipamendua burutzearen kostua 332 milioikoa dela. Aurrekoari gehitu behar zitzaizkion urteroko funtzionamendu-gastuak (5). Kontu-hartzailearen aburuz, “zuhurtzigabekeria litzateke obrei ekitea... bai horiek bukatzeko bai horien beranduagoko funtzionamendurako Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emateko konpromiso tinkorik hartu gabe...”. Azkenik, gogoratu beharra dago obra horretan gaur arte 336 milioi inbertitu direla guztira.

Beraz, ikuskatutako laginari buruzko **laburpen orokor gisa**, Ganbara honek berriro ere azpimarratzen dio Udalari beharrekoa dela administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere honako puntu hauei dagokienean: kontratazio-espedienteen formalizatzea, proiektuak esleitzerakoan konkurrentzia-printzipioa aplikatzea, epeak kontrolatzea, aholkularitza juridikoen partehartze aktiboa eta Udalaren barneko arauak betetzea.

Halaber, komenigarri deritzegu honako hauei:

a) *Diru zenbateko handiagoko obretarako, estuago betetzea indarreko legediaren aplikazioa, kontratazio prozesuari eta espediente izapidatzeari dagokienez. Espediente bakoitzaren informazioa zentralizatzea ere komeni da.*

*Baldintza-orriaren oinarritzko eredu bat orokorki aplikatzea.*

*Administrazio-jarduketa guztiak behar bezala –egoki diren txosten juridiko eta ekonomikoen bitartez– justifikatzea.*

*Urte anitzeko gastuen eta afektaturiko finantzaketa daukatenen kontabilitate-modulua gartzatzea.*

b) *Inbertsio-beharrei buruzko behar bezalako plangintza egitea, behar den denborarekin, espedienteak izapidatzeko presako bideetara jo behar ez izateko; izan ere, presako bidetik azterturiko espedienteetan ez dago legezko arrazoirik presa kartzat hartzeko.*

*Ez da ahaztu behar Udalak azterturiko obren gainean behar bezalako kontrol ekonomikoa egin duela. Hain zuzen ere, oso desbideraketa txikia gertatu da –batzuetan desbideraketa negatiboa ere gertatu da– esleipen-preziotik likidaziora.*

## VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolerako sistemak hobetzeko.

### VI.5.1. Antolamendu orokorra.

Funtsean, indarrean darraite 1997o txostenean emandako gomendioek:

- *Gaur egungo langileriaren osaera eta dimentsionaketa aztertzea, gaur egungo beharrezaneia eta langile guztiek –bereziki, behe-mailetakoebenetan buruturiko eginkizunei egokitua ote dagoen egiaztatzea.*

- *Barne Araubideko Erregelamenduaren Zirriborroa aztertu, eta, hala behar badu, onestea. Bertan eskumenak definitu eta banatzen dira Udaleko organo exekutiboen artean.*

### VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumenta - zioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaiz - kion kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditza - ten Udalaren ondasunak.*

- *Udal ondasunen eskriturazte eta erregistratze prozesua osatzea.*

- *Udalaren jabetzakoak diren lokal eta bajearen erabilgarritasun eta errentagarritasuna aztertzea.*

### **VI.5.3. Zordunak-Agentzia Exekutiboa**

- *Agente exekutiboekin dagoen harremana kasuan kasuko kontratuan dokumentatzea eta behar den fidantza jar dadila eskatzea.*

- *Epeak ezartzea zorrak agente exekutiboek eskualdatzeko.*

- *Osoko Bilkurak berariaz onestea itxitando aurrekontuen deusezpenak, deuseztu beharreko saldoak eta arrazoiak zehaztuz.*

### **VI.5.4. Langileria**

- *Plantilla organikoa aplikatu behar den ekital - diaren hasieran onestea, eta urtero onestea Enplegu Eskaintza Publikoa.*

- *Nominak eta lan-kontratupeko langileen kon - tratuak kanpoan egiten jarraitzea komeni den aztertzea.*

- *PFEZaren atxikipena zuzen egitea lan kon - tratupeko langileei.*

- *Osoko Bilkuretara, Gobernu Batzarretara eta abarretara joategatik Udaleko kideei egindako ordainketetan PFEZaren atxikipen-sistema bete - tzen ote den aztertzea.*

### **VI.5.5. Zerga-dirusarrerak, tasa, eta prezio publikoak**

- *Zerga-ordenantzen testua berrikustea, horiek Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen terminolo - giari eta gaur egungo udal errealitateari egokitze - ko.*

- *Hiri-ondasunak balioesteko ponentzia berri - kusteak.*

- *Zerga-figura bakoitzaren erroldak formalki onestea.*

- *Kasuan kasuko ordenantzan onetsitako pre - zioak hertsiki aplikatzea, eta ordenantzak behin*

*betiko onestea aplikatzekoak diren aurrekontu- ekitaldiaren aurreneko eguna baino lehen, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Legea betez.*

- *Dirusarrera horiek kontabilizatzean, zorrozta - sunez aplikatzea sortzapenaren irizpidea, Exeku - zio Oinarrietako 32. oinarriak adierazten duen bezalaxe.*

- *EIOZari dagokionez, behin betiko likidazioak egitea, betiere ordainazpenaren xede den ekintza - ren kostu errealaaren arabera.*

- *Zaintzaren kuotak arautzen dituen ordenan - tzan, ikasturtean zehar ordaindu beharreko kuotak aldatzeko aukera –gertatu geratzen baita– sar - tzea, baldin eta matrikulatutako haurren guraso edo tutoreen egoera sozial eta ekonomikoa edo lan egoera aldatzen bada.*

### **VI.6. 2000 EFEKTUA ETA EUROA SARTZEA**

“2000 efektuaren” ondorioei eta euroa sartzea - ri dagokienez, esan beharra dago Udalak, bere kanpoko aholkulariei esker, ekipo eta aplikazio informatiko guztiak aztertu dituela, eta arazorik eman dezaketenetan behar direnak egiten ari direla arazoei aurre egiteko. Udalak ez du uste eragin handirik izan dezaketetik udal jardueran.

### **VI.7. HIRIGINTZA**

1998an, Hirigintza Antolatzeke Plan Orokorre - an (HAPO) bi aldaketa puntual egiteko espedien - teak hasi dira. Bata, UC12arekin du lotura eta Vin - sak sustatua da; Nafarroako Gobernuak 1999ko ekainaren 29an eman dio behin betiko onespena. Bestea, berriz, UC-22ari buruzkoa da, eta Nafa - rroako Aurrezki Kutxak sustatua da; Nafarroako Gobernuaren behin betiko onespena emateko dago.

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarea eratu, eta ez du bere dirusarreraren ehuneko 5 ezartzen ondare hori eratzeko; ondare hori kontserbatzeko, mantentzeko eta zabatzeko dirusarrerarik ere ez da jartzen. Hala eta guztiz ere, gaur egun udale - rria agortuta dago; beraz, ezin dira betebeharrak horiek erraz bete.

Hirigintzaren arloan, ebazteko daude Bara - ñaingo Plan Partzialeko atikoetako jabeen aurka zabalduko 7 errekurtsioen behin betiko ebazpe - na; izan ere, jabe horiek haiek itxi egin zituzte, hirigintza probetxamenduari buruz Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeak ezarritakoari aurka eginez. Kasu horietako bakoitzean milioi bateko isuna ezarri zen. Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebazpe -

na eman zuen atikoetako jabeek jarritako gora jotzeko errekurtoa.

## VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

### VII.I. "LAGUNAK" UDALAREN KIROL ZERBITZUA

1998an, "Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzuak 152 milioi pezetako aitorturiko obligazioak eta 161 milioi pezetako eskubideak ditu. Ondoko laukietan azaltzen ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta:

(pezetak, milioitan)		
Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Kirol zerbitzuak	151	94
Bestelako dirusarrera berekiak	2	1
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	3	2
Barañaingo Udalaren dirulaguntzak	0	-
Enpresa pribatuen dirulaguntzak	5	3
<b>Guztira</b>	<b>161</b>	<b>100</b>
(pezetak, milioitan)		
Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Langileak	65	41
Funtzionamendua eta mantentzea	89	57
Inbertsioak	3	2
<b>Guztira</b>	<b>157</b>	<b>100</b>

Dirusarrerei dagokienez, Zerbitzuak finantza-autonomia handia du; izan ere, dirusarreren ehuneko 94 bere jarduerak sortua da. Nabarmendu behar da, bestalde, Udalaren finantza-ekarpena eskasa dela.

Gastuei dagokienez, azpimarratu nahi dugu funtzionamendu- eta mantentze-gastuek pisu handia izan dutela, kirol instalazioetan gertatu ohi den bezala. Inbertsioei buruz, berriz, azpimarratzekoa da Udalari dagokiola aparteko inbertsioen finantzaketa, zuzendaritza eta betetzea; izan ere, zerbitzuak instalazioen ohiko funtzionamendua bereganatzen baitu.

Langileei dagokienez, langileen kopurua –gerentea barne– ondoko laukian azaldu dugu; esan beharrekoa da, aldizkako lan-kontratu finkoa dutenak uda garaian aritzen direla.

Langileak	Zenbat
Finkoak	14
Aldizkako lan-kontratu finkodunak	4
<b>Guztira</b>	<b>18</b>

Langile horietatik, gerentea eta administrari laguntzaile bat dira administrazio eta kontabilitate lanetan aritzen direnak.

Ondotik kudeantzari buruzko zenbait gomendio ematen dira; gomendio horiek aplikatzea egokia da elkartearen barne-kontrolako sistemak hobetuko badira:

- *Diruzain eta idazkari postuak gaurko errealtate administratiboari egokitzea. Halaber, aztertzeara komenigarria ote den Udalaren Osoko Bilkurak aurrekontu-aldaketak egiteko baimena emateko derrigorrezkotasuna mantentzea –izan ere, gero ez baita betetzen–.*

- *Gastuak handitzea berekin ekartzen duten aurrekontu-aldaketak beren finantza-iturri eduki behar dute.*

- *Betebehar edo eskubideak ekartzen dituen ekintza oro kontu-hartzaileak edo barne kontrolak aztertu beharrekoa da.*

- *Aurrekontuak aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira.*

- *Kontabilitatearen sistema eta prozedurei dagokienez, egungo funtzionamenduak argi uzten du ondoko gomendioen beharra:*

- a) Kontabilitate-programa Elkartearen kudea -ketak sortzen dituen benetako beharretara egokitzeara.*

- b) Eragiketarako kontabilizatzerakoan, erregistratu beharrekoko egitatearen sorburutik ahal den hurbilena egin behar da.*

- c) Eskatzea gastu guztiek alde aurretiko baimena izatea.*

- d) Sortzapenaren irizpidea erabiltzea kontabilitatearen erregistratzerakoan.*

- e) PFEZaren atxikipena egitea tenis monitoreak egindako fakturretan.*

- f) Faktura guztiekin batera behar den ikusnospena egotea.*

*Labur bilduz, presakoa da behar diren aldaketak egitea Elkartearen kontabilitate tratamenduan, kontabilitatea kudeaketaren tresna bat izan dadin eta ez burokraziaren mekanismo hutsa.*

- *Inbentarioaren barrenean, lehenbizi Udalak ekarritako ondasun guztien zerrenda bat ezartzea; gero, gutxieneko edukia eta informazioa araupetuko dituzten arauak ematea, bai eta haiek kontabilitatearekin duten lotura ere.*

- *Diruzaintzari buruz:*

a) Aldiro, kutxako berdinketak eta bankuko berdinkatzeak egitea; jarduketa horiei buruzko agiriak egitea.

b) Eskudiruko fondoan gaineko kontrol fisikoa edo zaintza hobetzea.

c) Zabaldutako banku-kontuak murriztea; deua -seztea urtean zehar mugimendu gutxi dituztenak.

d) Banku-saldoetan lorturiko errentagarritasuna arrazoizkoa den aztertzea.

*Dirusarrerari buruz:*

a) Tarifak organo eskudunak behar bezala onetsi behar ditu –gaur egun, Udalaren Osoko Bilkura da organo eskuduna–, betiere aplikatzen diren ekitaldia baino lehen; prestazioaren kostuei buruzko kasuan kasuko txostenetan bermatu behar dira.

b) Zerbitzuaren prezio publikoak ordainarazteko prozesu osoa araupetuko duen arau orokorra prestatzea komeni den aztertzea.

c) Abonatuari egindako kobrantzen kudeaketa jarraitzeko sistema bat ezartzea.

*Langileei dagokienez:*

a) Urtero plantilla organikoa onetsi eta argitaratzea.

b) Organo eskudunek zehazki eta espresuki onestea zerbitzuko langileen soldata-mailak finkatzeko aplikatu behar den erreferentzia.

c) Nominak eta langileen kudeaketa dela-eta dauden obligazioak kanpoan egiten jarraitzea komeni den ala ez aztertzea. Horiek kanpoan egiten jarraitzen bada, harreman hori behar den kontratuaren bidez erregulatzea; betiere, aldeztatik behar den hautapen-prozesua egin beharko da.

Azkenik, adierazi behar dugu udalaren kirol jarduerak bai Lagunak Elkartearen bidez –igerilekuak, pilotalekuak, era askotako pistak– bai udalaren beraren bidez –kiroldegia eta atletismo pistak– kudeatzen direla. Gure iritziz, kudeaketaren bikoizketa horrek, hasiera batean behizat, halako kontradikzio bat irudi lezake; izan ere, organismo autonomo hori bereziki kirol arloan jarduteko eratu baitzen. Horren ondorioz,

Gure gomendioa da udalaren kirol zerbitzuen kudeaketa bateratzea komeni den aztertzea.

## VII.2. "LUIS MORONDO" UDALAREN MUSIKA ESKOLA

"Luis Morondo" Udalaren Musika Eskolak (aurrerantzean, Eskola), 97 milioi pezetako gas-

tuak ditu 1998an; dirusarrerak, berriz, 93 milioiak izan dira. Ondoko laukian xehetasunez agertu dugu gastu eta dirusarrera horien jatorria:

(pezetak, milioitan)		
Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Matrikulak eta bestelako dirusarrera berekiak	43	46
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	25	27
Barañaingo Udalaren dirulaguntzak	25	27
<b>Guztira</b>	<b>93</b>	<b>100</b>

(pezetak, milioitan)		
Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileak	86	89
Funtzionamendua eta mantentzea	10	10
Inbertsioak	1	1
<b>Guztira</b>	<b>97</b>	<b>100</b>

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura batez ere langileen gastuetan oinarritzen da: logikoa da hori, ikusita Eskolak nolako zerbitzua ematen duen. Dirusarrerari dogokienez, berriz, zentroak sorturiko diru-baliabideek aurrekontuaren ehuneko 46 egiten dute; beharrezkoa da, beraz, kanpoko finantzaketa –dirulaguntzen bidez–, bai Nafarroako Gobernuarena bai Udalarena berarena ere; 1998an bi bideetatik zenbateko berdina eskuratu du eskolak.

Langileei dagokienez, 1998 urtearen bukarean, Eskolak honako langile hauek zituen –zuzendaria barne dela–:

Langileak	Finkoak	Aldi baterako	Guztira
Irakasleak	17	9	26
Irakasle ez direnak	1	1	2
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>10</b>	<b>28</b>

Administrazio eta kontabilitate lanetan zuzendaria eta administrari laguntzaile bat aritzen dira.

Ondotik kudeaketari buruzko hainbat gomendio ematen dira, Eskolaren barne kontroleko sistemak hobetzeko komenigarri direnak:

- *Musika Eskolaren estatutuak Udalaren gaurko antolamendu eta funtzionamendu errealerara egokitzea; bereziki, Udalak berak dituen kontrol eginkizunak, kudeaketarako Eskolak duen autonomia-gaitasun erreala, eta Udalaren Kontu-hartzailetzak betetzen duen tokia.*

- *Obligazioak edo eskubideak berekin ekartzen dituen ekintza oro kontu-hartzailetzaren edo barne kontrolaren eskutik pasa behar da.*

- *Aurrekontuak, aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira.*

- *Kontabilitate-sistemari eta prozedurari dago-kienez, egungo funtzionamenduak agerian uzten ditu ondoko gomendioei jarraitu behar zaiela:*

a) *Eragiketen kontabilizazioa erregistratu beharreko egitatearen sorreratik ahal den hurbile-na egin behar da.*

b) *Faktura guztiekin batera, behar den ikusone-spena egotea.*

c) *Kontabilitatea kudeaketarako tresna gisa erabiltzera, ez mekanismo burokratiko huts bat balitz bezala.*

- *Inbentarioari dagokionez, beharrezkoa da haren edukia eta gutxieneko informazioa eta horiek kontabilitatearekin zer lotura duten araupe-tzeko erregulatzeko arauak eman behar dira.*

- *Diruzaintzari dagokionez:*

a) *Aldiro, kutxako berdinketak eta banku-berdinkatzeak egitea; jarduketa horiei buruzko agiriak egitea.*

d) *Eskudiruz egiten diren eragiketak gutxitzea.*

c) *Banku-saldoen bidez lorturiko errentagarritasuna arrazoizkoa den aztertzea.*

- *Hitzarmenak eta bidaiak kontzeptua dela eta izandako gastu eta dirusarrerari buruzko kontabilitate jarraipen berariazkoa egitea, ikusita ukitutako eragiketa direla.*

- *Langileei dagokienez:*

a) *Plantilla organikoa urtero-urtero onetsi eta argitaratzea.*

b) *Nominak eta langileen kudeaketa dela-eta dauden obligazioak kanpoan egiten jarraitzea komeni den ala ez aztertzea. Horiek kanpoan egiten jarraitzen bada, harreman hori behar den kontratuaren bidez erregulatzea; betiere, alde aurretik behar den hautapen-prozesua egin beharko da.*


c) *Nomina non egiten den alde batera utzita, komeni da nominak aldiro alderatu eta egiaztatzea.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**1. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 98-12-31n**



(1) 97-12-31n, LF gaixo dagoelako bajaran dagoena; haren ordez LK bat dago.  
 (2) Lanpostua hutsik dago 97ko eta 98ko plantilletan  
 (3) Peoi lanpostuetako bi amotzizatzeko daude (98ko plantilla)  
 (4) 10 peoi lanpostu eta monitore lanpostu bat; lan-harremanaren amaiera 98-12-31n izanzen da.  
 (5) 3 peoi lanpostu eta lanpostu bat hirigintzako ofizialarena.  
 (6) Administralari laguntzailearen ordez, 97-12-31n aldi baterako lan-kontratupeko langile bat jartzen zuten.  
 (7) Langile finkoaren ordez, 97-12-31n eszedentzian dago.  
 (8) Langile finko baten ordez (amatasun baxa eta euskara ikastaroa)

F.: Funtzionarioa  
 LF.: Langile finkoa  
 L.K.: Aldi baterako lan kontratua  
 E.: Erentuala

**II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Dirusarreraren betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Gastuen betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Kobrantzen betetzea = 
$$\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Ordainketen betetzea = 
$$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Zorpetze maila = 
$$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$$
- Zorpetzearen muga = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Langileen indizea = 
$$\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Inbertsio indizea = 
$$\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna = 
$$\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Dirusarreak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastuak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastu arruntak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = 
$$\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Finantza-zama biztanleko = 
$$\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$

